

Tren Txikitoan... Valentziaraino

Maider Iantzi

Badakizu? Egunen batean Valentziara joanen gara trenean eta arroza ekarriko dugu», erran zion amak 2 urteko seme ttipiari, ttur-ttur, ttur-ttur pasatzen ziren bagoiei so. Tren Txikitoa ez zen Valentziaraino iristen, jakina. Baina amets egitea posible zen. Tren honek Irun eta Elizondo lotzen zituen Bidasoaren ertzetik. 51,5 kilometroko luzeran, geltoki pila bat zituen: Irun, Behobia, Endarlatsa, Bera, Lesaka, Igantzi, Sunbilla, Doneztebe... Herri ugaritako jendeari eman zion zerbitzua, eta orain, martxan jarri zela mendea bete denean eta ttur-ttur hotsa isildu zela 60 urte, herriz herri dabil berriz, erakusketa gisa. Sunbillan da-

go asteartera arte, handik Baztanera joanen da, ondotik Zubietara... Batetik bertze-
ra ibiliko da abenduaren 31ra arte, Gabon zaharrean egin baitzuen azken bidaia. Kontatzen dutenez, ohi baino bidaiari gehiago izan zituen aldi hartan, aunitzek Irunen erosketak egiteko aprobetxatu zuten, eta zale batzuk, gutti batzuk, Irungo geltokira atera ziren agurtzera. Zuri-beltzeko argazkietako paisaiak bezala, izugarri aldatu da ordutik garraio-modua. Tren Txikitoaren bidetren bideari trenbidea deitzen diogu orain eta oinez edo bizikletan buelta lasai bat emateko aparta da. Errepideak, berriz, kamioiz eta autoz bete dira. Autoen barrenean zenbat lagun

doazen begiratzen badugu, 1, 1, 1, 1... da emaitza, eta, autobusak zenbatuz gero, lau egun osoan. Zerbitzu publiko on baten faltan, norbera konpontzen da ahal duen bezala mugikortasun beharrak asetzeko. Eroso eta aske sentitzen da bat auto barruan, baina beharrezkoa da mugikortasunari buruzko gogoeta kolektiboa. Hortik jaio dira Baztango Autokide (Autokidebaztan.compartir.org) eta Leitzako TarTarKar (Tartarkar.eus) bezalako proiektu interesgarriak, autoa partekatzeko aukera ematen dutenak, ez delako posible autoz Valentziaraino eroso-eroso joateko modua izatea eta bitartean autorik ez duena ondoko herrira joan ezinean gelditzea. •

Zoriontasunaren iraultza

Saioa Iraola

Festetako jolas-parkeetan noria handi bat ikusten dudanetan, bere horretan mugitu gabe buelta-ka dabilela, eguneroko bizimodu datorkit gogora. Askotan sentitzen dut banabilela kanpoalde itxurosoa duen norian, ez aurrea eta ez atzera; bai, aldiz, noizean behin gorantz eta nahi baino gehiagotan beherantz eginez. Ekoizpena eta kapitalaren metaketa oinarri dituen mugimendu estatikoan, kasu. Bizi ikuskera horrek bizi-rik dirau elkarren arteko lehia eta prekariedade egoerei esker. Bizitzan, pausu neurtu eta kontrolatuak emanda egiten dugu aurrera. Bidean, indibidualismoa, bakardadea eta esparru materiala lehe-

netsita. Ekonomiako premisa orokortu horiek zuzenean eragiten digute herritar-roi gure oreka afektibo eta psikologikoan; hala, egun, gure jendartean, gaitz nagusia depresioa izanik. Hortaz, babak eltzetik norberak atera behar ditugula sentiarazten digute, eta eguneroko bizitzan herritar automatik bilakatzen gara. Testuinguru horretan igeri gabilta kapitalismoaren eta patriarkatuaren aurkako mugimendu, elkartea eta pertsona oro. Norberaren ibilbide pertsonalatuaren aurrean, kolektiboki eta taldean lan egiten, jarduten, eraikitzen; finean, borrokatzen. “Indibidualismoa vs enpatia” dikotomia horretan, nire zilborrari begiratzeaz

gain, bestearen zilborrari ere begiratze-
an datza erronka; “*Si nos tocan a una nos tocan a todas*” lemak bere baitan dakarrenari arreta jartzean, alegia. Zure mina nirea ere badela sentitzea edo zu osatzen zaren heinean ni osatzen naizela ere sumatzea. Plazer, atseden, laguntasun uneak sortzen dihardugu, puntadaz puntada txikitasunetik eragiten. Iraultzan, jolas-parkeko norian dantzatzea, hitz egitea, konfiantza ehuntzea, enpatizatzea eta ongi pasatzea hautu politiko gisa barnebiltzeko saiakera egiten gabilta. Pentsatzen dugulako “zoriontasuna iraultzailea” dela (Berardi, Franco). •